

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

NORK ZAINTZEN DU ZAINTZAILEA?

Egilea: OIHANE ALVAREZ RUBIO

Zuzendaria: NAHIA IDOIAGA MONDRAGON

Leioan, 2023(e)ko Ekainaren 1e)(a)n

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA	3
3. MARKO TEORIKOA	4
3.1. ANTSIETATEA	4
3.1.1. DEFINIZIOA	4
3.1.2. SINTOMAK	5
3.1.3. KAUSAK ETA ONDORIOAK	6
3.1.4. LANAK ERAGINDAKO ANTSIETATEA	7
3.2. GIZARTE HEZKUNTZA	8
3.2.1. DEFINIZIOA	8
3.2.2. LANEKO ANTSIETATEAREN ONDORIOAK GIZARTE HEZITZAILEETAN	9
3.2.3. LAN EREMUAK	11
4. IKERKETAREN HELBURUAK	12
5. IKERKETAREN DISEINUA	13
5.1. LAGINA: Parte hartzaileen deskribapena	13
5.2. METODOLOGIA – Tresnen deskribapena	14
6. EMAITZAK	14
7. ONDORIOAK ETA PROPOSATU DAITEKEEN IRTENBIDEA	23
8. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA	25
9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	26
10. ERANSKINAK	28
10.1. 1.ERANSKINA: Parte hartzaileen datuak	28
10.2. 2.ERANSKINA: Galdetegia	30
10.3. 3. ERANSKINA: Inventario de Ansiedad Estado-Riesgo	32
10.4. 4.ERANSKINA - CBB: Síndrome burnout	35
10.5. 5. ERANSKINA - CBB : Emaidzak	36
10.5.1. Burnout maila	36
10.5.2. Neke emozionala	36
10.5.3. Errealizazio pertsonala	37
10.5.4. Despertsionalizazioa	37
10.6. 6. ERANSKINA: Baimena	38

NORK ZAINTZEN DU ZAINZAILA?
GIZARTE HEZITZAILEON OSASUNA KOLOKAN

OIHANE ALVAREZ RUBIO

UPV/EHU

Gizarte hezitzaileen lanbidea hainbat arlotan ezinbestekoa da. Horrek ere lan karga nabari bat eragiten die hezitzaileei. Lan karga horrek, lan baldintzek eta egunerokotasunean sor daitezken egoerak antsietatea sor dezake hezitzaileengan. Ikerketa honen bidez, alor desberdinetako gizarte hezitzaileen lanbidearen eta hezitzaileek duten antsietatearen inguruko harremana aztertuko da. Horrez gain, hezitzaileen ahotsei esker, antsietateari aurre egiteko proposamenak aurkeztuko dira.

HITZ GAKOAK: Antsietatea, Gizarte Hezitzaileak, *burnout*, sintomak, aurre egitea

La profesión de los educadores sociales es imprescindible en muchos ámbitos. Esto también genera una evidente carga de trabajo para los educadores. Esta carga de trabajo, las condiciones laborales y las situaciones que se pueden generar en el día a día pueden generar ansiedad en los educadores. A través de este estudio se analizará la relación entre la profesión de los educadores sociales en los diferentes ámbitos de trabajo y la ansiedad de estos. Además, gracias a las voces de los educadores, se presentarán propuestas para combatir la ansiedad.

PALABRAS CLAVE: Ansiedad, Educadores Sociales, *burnout*, síntomas, afrontamiento.

The profession of social educators is essential in many areas. This also generates an obvious workload for the educators. This workload, the working conditions and the situations that can arise in everyday life can generate anxiety in the educators. This study will analyze the relationship between the profession of social educators in different fields of work and their anxiety. Furthermore, thanks to the voices of the educators, proposals to combat anxiety will be presented.

KEY WORDS: Anxiety, Social Educators, *burnout*, symptoms, confrontation.

1. SARRERA

Gizarte hezitzaileok nortasun laguntzaile eta kontzientzia kritikoa sustatzen duten pertsonak direla argi dago. Horrek lanbidearen identitatearekin batera doa zeren eta hezitzaile bezala, herritar guztien berdintasuna, justizia soziala eta kontzientzia demokratikoa bilatzen duelako (ASEDES, 2007). Hezitzaileon lanbidea, diziplina anitzeko talde baten barruan, subjektuaren ongizatea errazten duena, ongizate hori oinarritzko gizarte- eta hezkuntza-premiak asetan oinarritzen da (De Oña, 2005 apud Heliz, 2015).

Lanbide honek lan karga nabari bat dakartza hezitzaileon osasun mentalean (Tortella, 2014). Azken urteetan asko ikertu da zaintzaileen zaintzaren inguruan eta ikerketek baieztatzen duten bezala, mendeko pazienteen zaintzaileetan depresioaren eta antsietatearen prebalentzia biztanleria orokorrean baino nabarmen handiagoa da (Dominguez, 2011). Ildo honetatik abiatuz, jarraian irakurri ahal izango duzuen ikerketa aurrera eraman da. Ikerketa honetan hezitzaileon lanbidearen eta antsietatearen arteko harremana bilatzen oinarritu da.

Antsietatea erantzun psikofisiko bat da (Mediano, 2017). Honen eraginez zenbait sintoma ager daitezke, hala nola, bihotz-erritmoa eta odol-presioa areagotzea, arnasa hartzeko zailtasuna, aurpegiko gorritasuna, goragalea, digestio-eragozpenak, giharretako tentsioa, dardarak, gehiegizko nekagarritasuna, eta abar (Garcia, 2011). Antsietateak egunerokotasunaren eremu guztietan eragiten du (Cabanyes, 2017 apud Barrientos, 2022). Honen arabera, gure lanean ere eragiten duen. Horregatik, ikerketa hau lanbidearen eta antsietatearen arteko harremana ikertzen saiatzen da.

Antsietatea alarma-sistema bat da (Zumaya, 2011) eta honi aurre egiteko zenbait proposamen aipatzea ezinbestekoa da. Egunerokotasunean ezin gara tentsiorekin egon eta are gutxiago gure lanbidean, pertsonekin lan egiten dugulako. Finean, gure burua zaindu behar dugu gure lana ondo aurrera eraman ahal izateko. Ideia horri jarraituz, talde lana sustatzea eta lan baldintza egokiak izatea ezinbestekoa dela baieztatu izan da aurrera eramandako ikerketan.

2. IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntzaren helburua ezin da hazkunde ekonomikoa izan, giza garapena baizik. XXI. mendean zehar, desiratutako aukera-berdintasunak hezkuntza dimentsioaniztuna, demokratikoa eta bizitza osokoa eskatuko du. Gizarte-errealitatea ulertzen lagunduko digun hezkuntza behar dugu, administrazio-laguntzatik kultura-anitzeko elkartera igarotzea erraztuko duen hezkuntza. Horrela bakarrik saihestu ahal izango dira azpigarapenaren arriskua, *poverty*

fatigue arriskua eta muturreko pobrezia-egoerek eragindako gizarte-etsipena. Hezkuntzak gizarte-kohesioaren utopia egia bihurtzen lagunduko du. Eta prozesu horretan, zalantzarik gabe, gizarte-hezkuntzak protagonismo berezia izango du (Petrus, 1997).

3. MARKO TEORIKOA

Marko teoriko honek bi zati nagusi ditu, alde batetik, antsietatearen inguruan berrikuspen teoriko sakon bat aurrera eraman da, aditu ekarpenak jasoaz. Bestetik, antsietateak Gizarte Hezkuntzan lanean ari diren profesionalengan izan dezakeen eragina aztertu da baita gaitz eta lanbide honen arteko elkarbizitza ere.

3.1. ANTSIETATEA

3.1.1. DEFINIZIOA

Antsietate terminoa latinezko “*anxietas*” hitzetik dator, gogoaren asaldura, kezka edo urduritasun egoera bati erreferentzia egiten dio (RAE,2022). Hitz honek zenbait esanahi ditu, alde batetik Eusko Jaurlaritzaren (2002) iritziz sentsazio normala da, pertsona batzuek batzuetan arrisku edo kezka uneetan izaten dutena. Antsietateak gainera momentu latzetan hobeto erreakzionatzeko balio digu. Laburbilduz, esan daiteke, antsietatea alarma-sistema bat dela (Zumaya, 2011).

Sentsazio hau gizakiaren existentziaren zati bat da, pertsona guztiek sentitzen dute neurri batean, eta hori egokitzapeneko erantzun bat da. Horrez gain, asaldura eta egonezin-egoera desatsegina da, arriskuari aurea hartzea du ezaugarri nagusi, eta sintoma fisiko, kognitibo eta emozional ugari ditu (Sierra, 2003).

Antsietate-nahasmenduak ohiko baldintzak dira, eta zailtasunak sortzen dituzte indibiduen garapenean, garapen psikosozial eta psikopatologikoan. Nahasmendu hau ohiko patologia mentala da, normalean sufrimendua eta desgaitasuna eragin dezaketenak, eta karga handia eragiten dute jendarte- eta ekonomia-eremuetan. Antsietatea erreakzio emozional normala da gizabanakoarentzako mehatxu-egoeren aurrean. Hala ere, erreakzio horiek egunerokoak eta asaldatzaileak bihurtzen direnean, ebaluatu egin behar dira antsietate patologikoaren konnotazioa identifikatzeko (Chacón, 2021).

Antsietateak une zailtan hobeto erreakzionatzeko balio digu. Hala ere, pertsona bat irrikaz dagoenean maiz, horretarako arrazoirik ez dagoela ematen duenean, edo pertsona hori

gehiegi tenkatzen denean, urduritasun egoera honek sentsazio desatseginak eragiten dituen arazo bihurtzen da (Baéz, 2002).

Kontuan izan behar da aipatutako definizioak antsietate orokorrari egiten diola erreferentzia, beste hainbat trastorno daude nahasmendu honi dagokionez, adibidez, Amerikako psikiatria-elkarteak, gaixotasun mentalen eskuliburuan (2013), antsietate-nahasmenduen barruan, hainbat mota edo diagnostiko aipatzen ditu, hala nola, banantzeak eragindako antsietate-trastornoa, mututasun selektiboa, antsietate sozialeko edo fobia sozialeko trastornoa, izu-trastornoa, agorafobia, antsietate-trastornoa, bestelako antsietate-nahasmendu orokortua, bestelako antsietate medikoa eta bestelako antsietatea espezifikoa edo ez espezifikoa.

Laburbilduz, antsietatearen ezaugarri nagusietako bat beldurra eta kezka gehiegizkoa eta etengabea sortzen dituela da, kontrolatzen zailak diren gertakari estresagarrien aurrean, eta gaixotasuna duenaren eguneroko bizitzari eragiten diolako. Antsietateak hainbat sintoma eta prebalentzia sortzen ditu, eta, horren arabera, honela sailka daiteke: izu-nahasmendua, agorafobia, fobia espezifikoa, antsietate sozialeko nahasmenduak, mututasun selektiboa, antsietate orokortuko nahasmendua, banantzeagatiko antsietate-nahasmendua, besteak beste (Urrutia, 2020).

3.1.2. SINTOMAK

Antsietatearen inguruan hitz egiterakoan, gaixotasun onek izan ditzakeen sintomak anitzak dira eta horregatik sailkapen baten bidez aztertu behar dira. Gazteenekin hasita esan beharra dago pediatarrengana joaterako momentuan ez dutela antsietatea desberdintzen eta beldurrez edo kezkaz aurkezten dela, eta, oro har, ez dute beren beldurra irrazionaltzat hartzen. Normalean, kexa somatikoak izaten dituzte: zefalea, abdominaleko mina, negarra, suminkortasuna eta haserrea. Kexa horiek gaizki interpreta daitezke oposizio edo desobedientzia gisa; egia esan, pazientearen beldurraren edo antsietatearen adierazpena edo haurrak beldurra edo antsietatea eragiten dion estimulua saihesteko egiten duen ahalegina adierazten dute (Ospina-Ospina, 2011). Aipatzekoa da, antsietatea iradokitzen duten sintometarako gehien erabiltzen den eskaletako bat SCARED (Screen for Child Anxiety Related Disorders) da (Ikusi 1. Eranskina).

Sintoma fisikoekin jarraituz esan beharra dago hainbat eta hainbat aurki daitezkeela, esate baterako, bihotz-erritmoa eta odol-presioa areagotzea, muskulu-tonua igotzea,

arnasketa-erritmoa areagotzea, digestio- eta sexu-funtzioa gutxitzea. Baita ere, izerdia, arnasa hartzeko zailtasuna, aurpegiko gorritasuna, goragalea, gorakoak, beherakoak, digestio-eragozpenak, giharretako tentsioa, dardarak, gehiegizko nekagarritasuna, eta abar (Garcia, 2011).

Sintoma fisikoen ildotik hurrengo sailkapena ere egiten da. Alde batetik, sintoma kardiobaskularrak ezartzen ditugu, hala nola, bihotz taupada arinak, pulsu azkarra, tentsio arterial altua, itolarriak. Arnas sintomen ondoren, adibidez, itolarri sentsazioa, itolarria, arnasketa azkarra eta azalekoa, toraxeko zapalkuntza. Bestalde, sintoma gastrointestinalak, gorakoak, goragaleak, beherakoa, aerofagia, digestio-eragozpenak, sintoma genitourinarioak; mikzio sarriak, enuresia, eiakulazio goiztiarra, frigidotasuna, ezintasuna. Sintoma neuromuskularrak, tentsio muskularra, dardarak, inurridurak, ahuntzeko mina, tentsio altua, gehiegizko nekea eta, azkenik, sintoma neurobegetatiboak, hala nola: ahoko lehortasuna, gehiegizko izerditzea, itsasoak eta lipotimia (Martin-Romo, 2012).

Sintomekin jarraituz eta emozionalei erreparatuz, hurrengoak aurki daitezke: Kezka, segurtasunik eza, beldurra, gutxiagotasun-pentsamendu negatiboak, ezintasuna, arriskuari edo mehatxuari aurrea hartzea, kontzentratzeko zailtasuna, erabakiak hartzeko zailtasuna eta ingurumenaren gaineko desantolaketaren edo kontrolaren galeraren sentsazio orokorra, argi pentsatzeko zailtasunak bultzatuta (Martin- Romo, 2012). Bestalde, hurrengoak ere aurki daitezke: ezintasun subjektiboa, kritiken beldurra eta antsietate-sintomen egozpen okerra (Garcia, 2011).

Laburbilduz, pertsona batek antsietatea duenean, urduritasuna sortzen da nerbio-sisteman, eta sintoma batzuk sortzen dira. Ohikoenak honako hauek dira: tentsioa lepoan, sorbaldetan eta bizkarrean; arnasteko zailtasunak, ikusmen lainotsua, beroaldia; takikardia, bularreko zapalkuntza; korapilo-sentsazioa urdailean, goragaleak; izerdia, dardara, inurridura eskuetan; ezegonkortasuna, dardara eta lausotzea hanketan (Baéz, 2002).

3.1.3. KAUSAK ETA ONDORIOAK

Antsietatea ez da gaixotasun (mental) bat, denok arrisku-uneetan edo kezka-uneetan bizi izaten dugun sentsazio normal bat baizik. Izan ere, une zailtan hobeto jarduteko balio digun egokitze-mekanismo bat da antsietatea. Antsietateak, eragin mentala zein fisikoa du pertsonetan, eta urduritasuna, kezka eta estu sentiarazten ditu. Izatez, antsietatea pertsonak pairatzen duten erreakzio normala da. Baina, pertsona batek askotan eta arrazoirik gabe

antsietatea sentitzen duenean edo gehiegizko tentsioa sentitzen duenean, antsietatea arazoa bihurtzen da, eta egoera hau, desatseginak dira. Horregatik, aipatzekoa da, kausa asko dituela eta pertsona batetik bestera aldatuz doazela (Baéz, 2002). Beldurraren eta antsietatearen egungo ulermenak biologiaren, eragin kognitibo-emozionalen eta estresaren elkarreragin sakon gisa bezala identifikatzen du antsietatearen kausak (Brantley, 2010).

3.1.4. LANAK ERAGINDAKO ANTSIETATEA

Antsietatea pertsonaren erantzun psikofisiko bat da (fisiologikoa, emozionala, kognitiboa eta jokabidezkoa), eta kanpoko edo barruko zirkunstantzien eta gertaeren aurrean alerta-egoera bat izatea du ezaugarri. Egoera horiek ahalik eta etekinik handiena behar dute bere organismoaren arrisku- edo mehatxu-egoerei aurre egiteko. Egoera horiek honako hauek izan daitezke: norberaren auto exijentziatik, beste pertsona baten eskakizunetik edo ingurumen-ingurunetik hasi, eta beldurra, arriskua, kaltea edo bizi-premiaren bat hautematen den egoeretaraino. Egoera horien aurrean, defentsa, ihes edo eraso-jarrerekin erantzun behar da (Mediano, 2017).

Antsietate-nahasmenduak dituzten pertsonen jardura profesionalari dagokionez, oro har, existitzeko modu berezi horrek oztopatzen du, eta, askotan, haien aukeren azpitik lan egiten dute. Hala ere, batzuetan, nahaste horiek dituzten pertsonak beren arazo pertsonalak gain konpentsatu ditzakete arrakasta profesionalen bidez, eta, kasu honetan, lana pertsona horien azken jomuga izatera igarotzen da, eta haien existentziaren helburu bihurtzen da, aberasgarria izan daitekeen jardura bat baino gehiago. Lanbide-porrotak hondamendi psikologikoa dakar kasu horietan, subjektu horien ardatz existentziala gai profesionalaren ingurukoa baita (Tobal, 1990 apud Casado, 1994). Honekin azpimarratu nahi dena zera da, antsietateak lan eremuan helburuak betetzera lagundu ahal ditzakeela baina aldi berean oztopatu lan kalitatea.

Antsietatearen arazoak lanbide-eremuko ondoez psikologikoaz eta fisikoaz gain dituen ondorioei dagokionez, antsietatea duten pertsonen funtzionamendua eta errendimendua murrizten dira. Gainera, antsietatea defentsa-mekanismo baliagarritzat har badaiteke ere, pertsona guztiek antsietate patologikoa izan dezakete ingurumen-zirkunstantziek horretarako aukera ematen badute, eta antsietate handia duten pertsonak erraz deskonta daitezke mehatxu minimoen aurrean (Cabanyes, 2017 apud Barrientos, 2022).

Laburbilduz, antsietatea erantzun psikofisiko bat izanda ere, bizitzako eremu guztietan eragiten du eta lanbidea ez da kanpoan geratzen. Nahasmendu honek bi egoera sor ditzake, alde

batetik errendimendu jaitsiera eta bestetik lana izatea bizitzaren azken helburua. Hala ere, azken honek ere egoera okertuz gero arazo gehiago ekar ditzake eta antsietate maila areagotzea.

3.2. GIZARTE HEZKUNTZA

3.2.1. DEFINIZIOA

Gizarte Hezkuntzaren kontzeptua ulertzeko, kontuan izan behar dugu haren ikuspegi integratzailea eta aldakorra, baita dagoen aniztasun eta aniztasun soziala ere; horri gehitu behar diogu gizarte bakoitzak bere ulertzeko modua duela (Perez, 2020). Gainera kontzeptua bera historiaz baldintzatuta dago, argi dago bere esku-hartze eremua espazio sozio komunitarioa dela. Ondorioz, edozein ikuspegitik begiratuta ere gizarte-hezkuntza, bi ezaugarri bereizgarrienek baldintzatuko dute: gizarte-eremuak eta izaera pedagogikoak (Petrus, 1997).

Gizarte-hezitzailea jendarte eta hezkuntza-ekintza bat (prebentzioa eta esku-hartzea) egiten duen profesionala da, pertsonekin eta/edo taldeekin, ildo normalizatu edo espezializatu batetik, jendartea hobetzeko eta eraldatzeko aldaketak sortzeko. Bizitza osoko hezkuntza sustatzen du, partaidetzaren eta espiritu kritikoaren garapenaren bidez (Vázquez, 2017). Gizarte-hezkuntzaren helburua subjektuen sozializazio-prozesuak lortzea eta optimizatzea da, subjektuak beren garaiko ingurune soziokulturala osatzen duten harreman-sareekin egituratzea bilatuz. Eta, zalantzarik gabe, adimen emozionalaren garapena da subjektuen sozializazioaren aurrerapen egokian eta haien artikulazioaren eta jendarte-mugimenduaren arrakastan eragin handiena duen faktoreetako bat (Gomez, 2003).

Gizarte Hezkuntzaren definizioa ASEDES-en (2007) arabera hurrengoa izango litzateke: Herritarren eskubidea, izaera pedagogikoko lanbide batez gauzatzen dena. Gizarte hezitzailearen gaitasuneko esparrukoak dira lanbide horren araberako hezkuntza-testuinguruak eta bitartekaritza eta prestakuntza-jarduerak, eta honako balio hauek bultzatzen ditu. Alde batetik, hezkuntzaren subjektua jendarte sareetara bideratzea, hau da, haren gizarteratzearen eta jendarte zirkulazioaren garapena. Esaterako, kulturaren eta gizarteraren sustapena, kultura-ondasunak eskuratzeko aukera berrietara egiten den zabaltze lan gisa, gizartean hezkuntza, lan, aisia eta partaidetzarako aukera eta ikuspegiak zabaltzeko.

Gizarte-hezitzailearen arreta-helburua beti izan da pertsona bakoitza bere dimentsio sozialean, beste pertsona batekin edo batzuekin elkar-eragiten duen testuinguru desberdinetan, taldean eta bizi den komunitatean integratzean (Ruiz-Corbella, 2015). Hezitzaileari taldea, komunitatea eta jendarte osoa interesatzen zaizkio, aldaketa soziala eta txertatuta gauden

errealitatea hobetzea bilatzen duen neurrian. Zuzenbide Estatu ororekin bat datorren eskuhartze gisa ulertzen da, herritar guztien berdintasuna, justizia soziala eta kontzientzia demokratikoa bilatzen dituen heinean (ASEDES, 2007). Hau da, aldaketa bat lortzera bideratutako ekintza kontziente, gogoetatsu eta planifikatua, gizabanako bakoitzaren eta, ondorioz, txertatuta dagoen talde eta komunitatearen bilakaera lortzera bideratua (Petrus, 1997).

Sintetizatuz, gizarte-hezkuntzak gainditu egiten ditu tradizionalki hezkuntzakoak - eskolakoak: akademikoak eta irakasleak- deitu izan diren mugak, egitura sozial eta politikoetan txertatzeko, hezkuntza egiteko modu gisa, programek, erakundeek, jarduerak... asmo eta orientazio hezitzailea izan dezaten (Lopez, 1995).

3.2.2. LANEKO ANTSIETATEAREN ONDORIOAK GIZARTE HEZITZAILEETAN

Antsieta erantzun emozionala edo erantzun-eredua da, eta alderdi kognitiboak, displazenteroak, tentsiokoak eta aprensiokoak biltzen ditu; alderdi fisiologikoak, nerbio-sistema autonomoaren aktibazio-maila handia ezaugarritzen dutenak, eta portaera ez doituak eta ez oso egokigarriak dakartzaten alderdi motorrak. Antsieta-lardaskatzea kanpoko estimulu edo egoera-estimuluen bidez nahiz subjektuaren barne-estimuluen bidez (pentsamenduak, ideiak, irudiak, etab.) elika daiteke, gizabanakoak arriskutsutzat eta mehatxagarritzat hartzen baititu. Antsieta-erantzuna gogora ekartzeko gai den estimulu mota subjektuaren ezaugarriek zehaztuko dute neurri handi batean (Tobal, 1990 apud Casado, 1994). Azken ideia honekin jarraituz, beharrezkoa deritzot aipatzea ikerketan lortutako datuek ezin direla orokortu eta subjektuek baldintzatzen dutela lortutako emaitzak.

Lanaren ondorioz, erretzearen sindromea (*burnout*) pertsoneri eta laguntza-profesionalei zuzendutako enpleguekin lotu izan da tradizionalki, baina lanbideak aldatu egin dira (osasun-langileak, irakasleak, abokatuak, polizia, psikoterapeutak, korrekzionaleko ofizialak, Gizarte Zerbitzuetako profesionalak, etab.). Asistentzia-lanen artean, gizarte-hezitzailearen lana dago, gizarte-zerbitzuetan. Gizarte-hezitzailea, Gizarte Zerbitzuen esparruan gehien hedatutako figuretako bat da eta gizarte-arriskuan dauden pertsoneri arreta ematera bideratutako hainbat baliabide edo programatan egiten du lan. José Manuel de Oña (2005) Malagako Unibertsitateko irakasleak emandako definizioari jarraiki, gizarte-hezitzailea da, diziplina anitzeko talde baten barruan, subjektuaren ongizatea errazten duena, ongizate hori oinarrizko jendarte eta hezkuntza-premiak aseta izatea eta, era berean, bere gaitasun

pertsonalak garatzeko aukera izatea dela ulertuta, bizi den gizartean modu kritiko eta aktiboan parte hartuz. Gizarte-hezitzailea hezitzailearen, gizartearen eta kulturaren arteko bitartekaria da (Heliz, 2015).

Gizarte hezitzailearen lanbidea oso anitza dela argi dago, honen inguruan gero gehiago sakonduko da, baina kontuan izan behar dugu ezinbestekoa dela gure profesionari daukan balioa ematea. Honekin aipa behar dena da hezitzaileok ere zaintza arlotan ari direnez lan horrek dakartzan arazo psikologikoak gainjartzen dituztela. Azken urteetan asko ikertu da zaintzaileen zaintzaren inguruan eta ikerketek baieztatzen duten bezala, mendeko pazienteen zaintzaileetan depresioaren eta antsietatearen prebalentzia biztanleria orokorrean baino nabarmen handiagoa da. Zenbat eta gizarte-laguntza handiagoa, orduan eta txikiagoa da nahasmendu horien prebalentzia (Dominguez, 2011).

Honek ere erlazioa dauka hezitzaileon lanbidearekin, azken finean pertsonengan erlazio handiagoa izanik gero eta antsietatea jasateko aukera gehiago, horren adibidea banantzeak eragindako antsietate nahasmendua daukagu. Nahasmendu honen ezaugarrietako bat da beldurra edo antsietate bizia eta iraunkorra, lotura estua duen pertsona batengandik banandu behar izateari dagokiona (Tortella, 2014).

Beste alde batetik, *burnout* kontzeptua azaleratzea garrantzitsua deritzot. Kontzeptu hau lotura estua baitauka antsietate nahasmenduarekin. *Burnout* sindromea edo lanak erreta egotearen sindromea norbanakoak laneko baldintza psikosozial kaltegarri jakin batzuekin duen elkarreraginaren ondorio da, eta langilea behar bezala babesten ez denean edo lana pertsonari egokitzen ez zaionean ager daiteke. Laguntza-lanbideetan edo zerbitzu humanitarioetako lanbideetan soilik gerta daiteke, kanpoko eta barneko gehiegizko eskaera emozionalak asebate ezinezkoak baitira, eta porrot pertsonalaren bizipena eragiten dute, lanari gehiegizko karga emozionala eman ondoren. *Burnout*-aren ezaugarriak honako hauek dira: muturreko akidura emozionala, despertsonalizazioa pertsonetikiko tratuan eta errealizazio pertsonalik eza lanean (Maslach, 1996 apud Tarraga, 2016).


Amaitzeko, aipagarria da nola autore ezberdinen ustez, beste pertsonen laguntzea edo zaintzea azken helburu bezala duten lanbideak oso lotura estua daukate arazo psikologikoak, hala nola, antsietatea edo *burnout* sindromea sor dezaketen egoerekin.

3.2.3. LAN EREMUAK

Ikerketa ugari eraman dira aurrera eta ez dago sailkapen orokor bat erreferentzia egiten dionik gizarte hezkuntzaren lan eremuak biltzen dituenena. Hala ere zenbait adibide azalduko dira non hezitzaileon lana biltzen den. Hasteko gizarte hezkuntzako gradua ikasten dabiltzanen ikasleei egindako inkesta batean hurrengo grafikoan (Ikus 1. Grafikoa) ikusi daitezkeen lan eremuak aipatzen dituzte. Kasu honetan ikerketa hau lan eremu zehatzei egiten dio erreferentzia hau da, kolektibo zehatzak aipatzen dituzte ikasleek. Honek ez du soilik esku-hartzei erreferentzia egiten baizik eta norekin lan egin dezaketen gizarte hezitzaileek aipatzen dituzte.

1.Grafikoa:

Gizarte Hezkuntzaren Jarduera Eremuak (Vazquéz,2017)



Ehunekoak aztertu ondoren, honako eremu hauek nabarmentzen dira: droga-mendetasuna (%16), desgaitasuna eta osasun mentala duten pertsonak (%13), hirugarren adina (%13) eta haurrak (%9). Ikasleek Gizarte Hezkuntzakoak direla adierazi duten beste esparru batzuk honako hauek dira: immigrazioa eta helduak (%7), nerabezaroa (%6), genero-indarkeria (%5), arreta sozio komunitarioa (%4), animazio soziokulturala eta laneratzea (%3), neurri judizialak, gizarteratzea eta gizarte-bazterketa (%2), etxerik gabeko pertsonak, haur-indarkeria, familia-bitartekaritza, hezkuntza, kaleko hezkuntza, kulturartekotasuna, edo haurren indarkeria (%1) (Vazquez, 2017).

Horrez gain, beste aditu batzuk beste motatako sailkapenak egiten dituzte, adibidez, Miquel Goméz Serra irakasleak gizarte hezkuntzaren lan eremuei erreferentzia egiten dion artikulu batean (2003) hurrengo grafikoan aurki ditzakegun eremuak aipatzen ditu.

Grafiko honetan ikusi daitekeen bezala esku hartzeak ez du erreferentzia egiten soilik kolektiboari baizik eta esku hartze konkretuengan jartzen da begirada. Animazio soziokulturala eta aisialdiaren pedagogia, hezkuntza espezializatu, helduen hezkuntza, eta animazio sozioekonomikoa eta lanerako prestakuntza izango lirateke aditu gehienek onartzen dituzten sailkapena eta Bartzelonako *Hezitzaileen eta Eragile Soziokulturalen Prestakuntzari Buruzko Jardunaldietan* baieztatu zirenak (Goméz, 2003).

2. Grafikoa:

Gizarte-Hezkuntzan Esku Hartzeko Eremu Espezifikokoak (Goméz, 2003)



Hala ere, Gizarte-hezkuntzan esku hartzeko eremu espezifikoei dagokienez, azpimarratu behar da sektore eta erakunde-arlo ezberdinekin lotu daitezkeela. Hau da, eremu bera hainbat adin-talderi zuzentzen zaie, premia espezifikoki pluralei, eta hainbat erakunde-eremutatik gara daiteke. Ondorioz, esku hartzeko eremu bakoitzak hainbat azpieroitu ditu, biztanleria-taldeen, premia berezien eta erakundeen posizioen arabera. Bestalde, eremu horiek osagarriak direla eta elkarrekin dituztela interpretatu behar da, eta eremu bakoitzaren berezko ezaugarri definitzaile batzuk daudela, baina baita partekatutako diren beste batzuk ere (Goméz, 2003).

Laburbilduz, esan daiteke, gizarte hezkuntzaren lan eremuak anitzak eta zabalak direla eta oso zaila izan daitezkeela hauek konkretatzea. Baina horrez gain, esan daiteke gizarte hezitzaileak gizarte- eta hezkuntza-ekintza bat (prebentzioa eta esku-hartzea) egiten duten profesionalak dira, pertsonekin eta/edo taldeekin, ildo normalizatu edo espezializatu batetik, jendartea hobetzeko eta eraldatzeko aldaketak sortzeko. Bizitza osoko hezkuntza sustatzen du, parte-hartzearen eta espiritu kritikoa garatzearen bidez. Testuinguru sozio komunitarioetan egiten du lan, batez ere arautu gabeko eremuan (Bas-Peña, 2014 apud Vazquez, 2017).

4. IKERKETAREN HELBURUAK

Aurreko marko teorikoa kontuan izanda eta aditu ezberdinen iritziak kontuan izanik ondorengo helburu orokor eta espezifikoak planteatu dira ikerketa honetan:

HELBURU OROKORRA

- Gizarte hezkuntza eta antsietatearen arteko harremana aztertzea, horretarako alor ezberdinetan lan egiten duten gizarte hezitzaileen ahotsak batuz.

HELBURU ZEHATZAK

- Alor ezberdinetako gizarte hezitzaileen aburuz, antsietatea eta antsietate laborala eta hauen kausak definitzea.
- Alor ezberdinetako gizarte hezitzaileengan antsietateak duen eragina aztertzea.
- Alor ezberdinetako gizarte hezitzaileek antsietateari aurre egiteko erabiltzen dituzten baliabideak jasotzea.
- Laginean parte hartu duten gizarte hezitzaileen antsietate eta *burnout* mailak ebaluatzea.

5. IKERKETAREN DISEINUA

Ikerketa honek diseinu misto izango du tresna kuantitatibo eta kualitatiboez burutuko baita, zehazki, elkarrizketa sakonak izango dira bere instrumentu nagusiak baina balioztatutako bi galdetegiz osatuko ditugu gure emaitzak.

Elkarrizketa sakoneko metodologia kualitatiboa instrumentu nagusi gisa aukeratu zen bere azalpen-propietate eta esploratzeko ahalmenengatik. Horregatik, ikerketa honetako lagina txikia izango da, alde kuantitatorako eta ez preseski esanguratsua baina halere kuantitatiboki aztertutako pertsona konkretu hauen antsietate eta *burnout* mailak aztertuko dituzten galdetegi baliotuak erabili nahi izan dira beraien profilak osotasunean ulertu eta baloratu ahal izateko (Flick, 2009; gill eta Johnson, 2010 apud Ugalde, 2022).

5.1. LAGINA: Parte hartzaileen deskribapena

Laginetak Gizarte Hezkuntzako alor ezberdinetako profesionalak biltzea izan du helburu. Horretarako Vazquez, 2017 planteatutako Gizarte hezkuntzaren jarduera eremuetatik abiatuz, ikerketa horretan alor esanguratsuenetako 2 profesional eta esanguratsutasun maila txikiagoko alorretatik profesional bana aukeratzea erabaki zen. Gogora dezagun ikerketa bereziki kualitatiboa dela ete helburua alor ezberdinetako profesional konkretu hauen bizipenak

biltzea izango dela. Laginketa honetan oinarrituta, droga-mendetasuna duten pertsonekin lan egiten duten bi hezitzaile elkarrizketatu dira, bata Bizitegi elkartekoa eta bestea GIZAKIA fundaziokoa. Bestetik desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten dutenen artean FEKOOR eta Gorabide elkarteko hezitzaileek elkarrizketatu ditugu. Hirugarren adineko pertsonekin lan egiten dutenen artean, Colisee hirugarren adiko zentroetan dauden bi emakume elkarrizketatuak izan dira. Haurren alorrari dagokionez, adingabeentzako etxebizitzetan lan egiten duten bi hezitzailek (IFAS / GUF Etxebizitza) beraien ikuspuntua eman zuten. Bukatzeko immigrazioa (Cruz Roja), helduak (EISE), nerabeekin (Ibaiondo) eta genero indarkeria (Giltza) alorretan lan egiten dituzten hezitzaileen iritzia ere bildu dira, alor hauetatik hezitzaile bana. (Elkarrizketatuen inguruan informazio gehiago izateko [ikus 1. Eranskina.](#))

5.2. METODOLOGIA – Tresnen deskribapena

Aurretiaz aipatu bezala, erabilitako instrumentu nagusia elkarrizketa sakona izan da ([ikus 2. Eranskina](#)), non Gizarte Hezkuntzako alor ezberdinetako profesionalei beraien lanpostuen eta honek antsietaterekin duen loturaren inguruan galdetu zaien. Galdetegia pertsona konkretu horien antsietate eta *burnout* mailak neurtzeko galdetegiekin uztartu dira, hauek izan direlarik erabilitako instrumentuak (Gaztelaniazko bertsioan biak):

- Cuestionario STAI ([ikus 3. Eranskina](#)):
 - o Spielberger, C. D., Gorsuch, R. L., eta Lushene, R. E. (1982). Cuestionario de ansiedad estado-rasgo. *Madrid: Tea*, 1.
- Cuestionario Breve de *Burnout* (CBB): Síndrome *burnout* ([ikus 4. Eranskina](#))
 - o Moreno, B., Bustos, R., Matallana, A., eta Millares, T. (1997). La evaluación del *Burnout*. Problemas y alternativas. El CBB como evaluación de los elementos del proceso. *Revista de Psicología del Trabajo y de las Organizaciones*, 13, 185-207.

6. EMAITZAK

Lehenik eta behin, parte hartzaileek antsietatea bera nola ulertzen edo definitzen zuten jakin nahi genuen. Definizio kliniko-mediku batetik haratago beraien ulermen propioa zein zen aztertuz. 1. taulan parte hartzaileek antsietateari buruz emandako definizio nagusiak bildu ditugu ezegonkortasun eta ezinegona direlarik gehien gailendu ziren terminoak.

1. Taula:

Parte Hartzaileen Antsietatearen Definizioak

ZENBAKIA	DEFINIZIOA
1.1 (Giz,46 urte, Bizitegi)	Denok sufritzen dugu. Pertsonekin arlo sozialean lan egitearen arazoa da pertsonak ezin direla aurreikusi. Orduan, bat-batean espero ez zenituen gauzak gertatzen dira eta antsietatea sortzen da. Adibidez, pertsona bat espero ez zenuen moduan jokatzeko ari da, eta ez dakizu nola esku


	<p>hartu edo nola jokatu, eta antsietatea sartzen zaizu. Ez duzu ezer kontrolatzen eta gero eta urduriago zaude. Nik ere antsietatea sentitzen dut nire lanean aldaketak daudenean, eta horiek beti egoten dira, inoiz ez zaude zure erosotasun-eremuan. Egiten ez dakizkizun gauzak egin behar izatea eta nola jokatu ez dakizunean edo erreferente gisa ikusi ezin zaituztela sentitzea.</p>
<p>1.2 (Em, 39 u, Gizakia)</p>	<p>Laneko antsietatea larritasun emozionaleko modu bat da, lanean aritzeko benetako edo aurretiazko minari lotua.</p>
<p>2.1 (Giz, 30 u, Gorabide)</p>	<p>Nire ustez, laneko antsietatea larritasun-egoera bat edo lanetik kanpoko egoera bat da, dela lan-gainkarga bereziki zaila izateagatik, dela zure lan-jarduera zailtzen duten lan-baldintza prekarioak izateagatik (langilerik eza eta lan asko, adibidez).</p>
<p>2.2 (Em, 26 u, FEKOOR)</p>	<p>Nire ustez, laneko antsietatea gutxi jorratutako gaia da, eta horrekin esan nahi dut lan guztietan antsietatea sor dezaketen alderdi batzuk daudela. Baina, nire ustez, gure kasuan, pertsonekin lan egiten den beste kasu batzuetan bezala, antsietate handia sor dezake, baita frustrazioa ere hainbat alderditan eta esku-hartzeetan. Orain dela gutxi pentsatzen hasi nintzen, eta lan egiten dugun kolektiboarekin ez dugu lorpenik lortzen epe laburreko helburuekin, baizik eta Piviak epe luzerako helburuekin egin behar ditugula, eta, beraz, horrek, askotan, nolabaiteko antsietatea eta egonezina sor dezake. Era berean, pertsona bakoitza nolakoa den kontuan hartuta, ni, adibidez, nahiko perfekzionista naizela uste dut, eta hori aldatzen saiatzen ari naiz, ez baitut ezer lortzen. Lanbide honetan pazientzia handia izan behar da, eta lana eta pertsonala bereizten jakin behar da; izan ere, lan egiten den kasuren batek ezin badizu nahiko eragin.</p>
<p>3.1 (Em, 25 u, Colisee)</p>	<p>Estutasunak larritasuna eta antsietatea sortzen dizkizu. Lanaldi erdian egoteak larritasuna sortzen dit, ez bainaiz deskonektatzeko gai, eta ez dut denborarik pentsatzeko zer egin nahi dudan nire ordutegiaren barruan. Sentitu ahal izateko ordu bete lehenago sartzen nintzela gauzetara kobratu gabe lan egitera. Ikusten duzu ez zarela iristen, igurtzi eta larritu egiten zaitu. Estutasun hori gertatzen da eta kudeatzen ikasten duzu.</p>
<p>3.2 (Em, 30 u, Colisee)</p>	<p>Antsietatea sortzen dit kexatzen diren familia batzuek, eta nik ezin ditut kudeatu, ez daudelako nire esku eta kexak ez dituztelako fundamenturik. Maila pertsonalean, kexak kudeatzeko tresnak baditudala uste dut. Ez nuke antsietate gisa definituko, baina bai nerbio eta tripako min gisa. Antsietatea baino gehiago amorrua dela esango nuke. Ondoeza sortzen dit errespetu faltak sufritzen ditudanean.</p>
<p>4.1 (Em, 34 u, IFAS/GUFE)</p>	<p>Niri antsietatea edo normalean ez ditudan sentimenduak izatea arazo larriagoak sortzen direnean izaten da. Adibidez, adingabe bat desagertzen bada edo oldarkortasun-gairen batekin has badaiteke, egin behar duzun lan osora askotan ez iristeak ere antsietatea sortzen dit. Ordutegi oso markatuak daude, eta txanda bat eman behar duzu, eta zuk, langile gisa, dena amaituta egotea nahi duzu, zure lankideari behar baino gehiago ez iristeko, eta hori ezinezkoa da batzuetan. Laburbilduz, adingabeek jarrera oldarkorak izatea edo zu, langile gisa, iristen zaren lekuraino iristea eta ezin duzula ikustean.</p>
<p>4.2 (Em, 42 u, IFAS/GUFE)</p>	<p>Niretzat antsietatea ezberdintzen da une horretan lan egiten duzun moduaren arabera. Ni lanean egon arren, ez dut oraindik nire plaza finkorik, eta, orduan, batzuetan, kontratu bat amaituko zaizun edo beste nonbait lan egiten hasi behar duzunaren kontrolean aritzeak berak sortzen dit antsietatea, urte asko daramatzalako egokitu ondoren. Izan ere, arreta zuzeneko lanak dira, adingabeekiko atxikimendua eta lotura oso garrantzitsuak dira, eta zuk gauzak hasten dituzu eta, askotan, erdizka utzi behar dituzu. Beste batzuetan, berriz, lan-karga handia izan dut. Guk 8 hezitzailez osatutako taldean lan egiten dugu, eta, jakina, indarrak, gaitasunak, gogoia eta inplikazioa ez dira berdinak. Orduan, batzuetan, lan-karga gehigarri horrek, zereginak ez banatzeak sortzen dizunak, antsietatea eragiten dizu, edo, bestela, ezin zara edozertara iritsi.</p>

<p>5 (Em, 43 u, Gurutze Gorria)</p>	<p>Denborarik ez daukadala nahi dudan guztia egiteko. Barrutik nabaritzen dut zerbait ezin dudala lortu nahi dudan guztia egin.</p>
<p>6 (Em, 47 u, Udaletxean)</p>	<p>Estres handiko edo laneko karga handiko uneek sortutako sintomatologia fisikoa. Batzuetan frustrazio handia dago, ezin diegulako aurre egin gurekin lan egiten dugun pertsonen egoerei eta beharrei.</p>
<p>7 (Em, 44 u, Ibaiondo)</p>	<p>Definituko nuke egin behar dudana egiteko gai ez sentitzea bezala, dena bertan behera uzteko gogoia bezala, ezintasuna.</p>
<p>8 (Em, 29 u, Caritas)</p>	<p>Zaila da laneko antsietatea deskribatzea, edo deskribatu baino gehiago, zaila iruditzen zait jakitea noiz ari zaren pairatzen eta kudeatu ahal izatea. Existitzen da, benetakoa da, baina ezin izan dut beti mahai gainean jarri lan ezberdinetan. Ziurtzat jotzen da, edo nik, hasieran behintzat, ematen nuen gure lanaren zati bat gainerakoen emozioak kudeatzea dela, eta hasieran nire egiten nituen. Intentsitate handiarekin egiten dugu lan, erabaki zailekin.</p>

Definizio hauetan oinarrituta, parte hartzaileei noizbait antsietaterik sentitu duten galdetu zitzaizen eta guztiek, bakarrak izan ezik, baietz erantzun zuten. Ondoren, antsietate hori sentitzean zein sintoma izan zituzten galdetu nien eta 3. Grafikoan beha ditzakegunak aipatu zituzten.

3. Grafikoa:

Antsietateari Lotutako Sintomak



Aipatzekoa da aniztasun honen baitan elkarrizketatuen erdiak tentsioa eta urdaileko ondoeza sentitu izan dutela.

Elkarrizketetatik lortutako informazioarekin jarraituz, elkarrizketatu GUZTIEK uste dute gizarte hezkuntzaren lanbideak antsietatea sortzen duela. Beraien hitzetan pertsonekin lan egiten dugun neurrian antsietatea egon daiteke (1.1) eta lan pertsonal bat ez baldin badago eginda oso ohikoa izan daiteke (6). Hala ere, bi elkarrizketatuk (4.1,4.2) aipatzen dute lan arloaren arabera ezberdina izan daitekeela. Elkarrizketatu batek (5) baita aipatzen du agian ez dela lanbidea baizik eta lan baldintzak. Honekin jarraituz beste batek (2.2) aipatzen du subentziotatik duzun dependentziak antsietatea sor dezakeela.

Halaber, antsietate horren kausak zeintzuk zirela uste zuten galdetu izan zitzaizen partehartzaileei. Hezitzaileek kausa anitz eta desberdinak aipatzen zituzten 2. taulan ikus daitekeen gisara baina ez iristearen sentsazioa izango litzateke nagusiena.

2. Taula:

